

GARAIO (574m)- PR BI-41



Garaio mendia Ugatxa mendilerroan kokatuta dago. Mendi lerro honek paralelo dituen bi aldeetako mendilerroekin konparatuz tontor xumeak dituela esan dezakegu, izan ere, mendilerroaren iparraldean Aramotz mendilerroa dago (Belatxiketa, Urtemondo, Gainzorrotz...), horietako gehienak ia 800m-ko garaierarekin eta Hegomendebaldean Gorbeia mendilerroa dauka, bertan dauden tontor gehienek 1000 m-tik gorako garaiera dutelarik. Ugatxako mendilerroa kare harriz osatuta dago eta horrek ematen dion berezitasun handiena urteen poderioz inguruan sortu diren kobazulo, leize, lapiazak... dira.

Garaio tontorretik gertu hain ezaguna den Baltzolako koba daukagu, baita Euskal Herriko mitologian hain ezaguna den Jentilzubi pasabidea ere. Irteera honetan Jentilzubi eta Baltzolako koba ezagutzeko aukera izango dugu.


IBILALDIAREN ZEHETASUNAK:

Dimako Indusi auzotik hasiko gara eta PR markak jarraituz (horiak eta zuriak) ibilbidea egingo dugu. Momentu batean bidetik desbideratuko gara Baltzolako kobak bisitatzeko. Baltzolako koba bisitatu eta gero PRaren bidera bueltatuko gara Garaio tontorrera heldu arte. Kontrako isurialdetik jaitsiko gara Baltzola auzora heldu arte eta berriz ere Baltzolako kobetarantz abiatuko gara. Kobara heldu baino lehen igoyerako bidea hartuko dugu parkingera heltzeko. Behean ibilbide orria daukazue.

INFORMAZIO TEKNIKOA:

- **Luzeera:** 7,2 km.
- **Iraupena:** 4 ordu.
- **Desnibel positiboa:** 393 m.
- **Zailtasun teknikoa:** erdikoa. Tontorreko iguera eta jaitsiera pixka bat deserosoa da, oro har harria bustita badago.
- **Zailtasun fisikoa:** baxua.

IBILBIDEAREN IRUDIAK:



**IBILBIDE ORRIA:****IBILBIDE ORRIA**

Irteera: Garaio 574 m.		Mendilerroa: Ugatxa		Data:
	Lekua	Norabidea	Deskribapena	
1	Indusiko Ermita	N210E	Zubia zeharkatuko dugu, marra horiak eta zuriak jarraitu beharko ditugu.	
2	Bidegurutzea	N180E	Zubia pasatu eta 40 metrotara kartel bertikalera helduko gara. Markak jarraituz Zamakola jartzen duen norabidea hartu.	
3	Bidegurutzea	N360E	Beste zubi batera helduko gara. Markak jarraituz zubia zeharkatuko dugu Baltzola jartzen duen norabidea jarraituz.	
4	Jentilzubi eta bidegurutze	N180E	Jentilzubi deitzen den harrizko zubia azpitik pasatu eta 30 metrotara eskumara bide Nagusia hartuz. Bidezidorra ezkerretara utzi.	
5	Bidegurutzea	N060E	Aurreko bidegurutzetik 5 minututara gorantz eginez bide nagusitik irtengo gara ezkerrean doan bidezidorra hartzeko. Momentu honetan bakarrik marka hori eta zuriko bidezidorretik desbideratuko gara. Bide honek Baltzolako kobara eramango gaitu. Kobazuloa oso handia da eta ez dago inolako arriskurik.	
6	Kobazuloa	N0120E	Kobazuloan sartu eta eskumarantz egingo dugu. Eskumako aldetik zeharkatuko dugu.	
7	Bidegurutzea	N170E	Kobazulotik irten eta 30 metrotara gorantz doan eskumako bidezidorra hartuko dugu hortik gutxira bide nagusiarekin bueltatu arte.	
8	Seinale bertikala	N140E	Bide nagusira helduko gara eta berriz ere marka horiak eta zuriak jarraituko dugu, Baltzola jartzen duen norabidea hartuz.	
9	Bidegurutzea	N160E	Beste seinale bertikal batekin topatuko gara. PR BI 41 Garaio jartzen duen norabide hartuko dugu. Eskumako bidea.	

mendieskola kirola

10	Pinudia	N080E	Pinudian sartzean bidegurutze bat izango dugu. Marka horiak eta zuriak jarraituz aldapan gora egingo dugu. 100m igo eta gero tontorrera eramango gaituen harrizara helduko gara, harria bustita badago zuhurtziaz jokatzea aholkatzen dizuegu.
11	Garaio tontorra	N090E	PR BI 41 ibilbidea osorik burutu nahi badugu igo dugun kontrako aldetik markak jarraituz jaitsi beharko gara.
12	Bidegurutzea	N130E	Pinudian sartu eta 5 minututara bidegurutze bat izango dugu. Marka horiak eta zuriak jarraituz eskumatik beherantz doan bidea hartuko dugu.
13	Ererita dagoen etxea	N310E	Beste seinale bertikal batekin topatuko gara. Baltzola jartzen duen norabidean harrizko pistatik beherantz egingo dugu.
14	Baltzola auzoa	N300E	Kanadiar hezia zeharkatuko dugu ermita paretik pasatzeko. Bertan iturria dago.
15	Bidegurutzea	N160E	Kanadiar hezitik 40 metrotara egurrak pilatzen duten gunera helduko gara, bertan marka horiak eta zuriak jarraituz ezkerreko bidetik beherantz egingo dugu.
16	Bidegurutzea	N280E	Garaiora igotzeko hartu dugun bidegurutzean gaude. Bertan marka horiak eta zuriak jarraituz Indusi jartzen duen bidea hartuko dugu. 30 minututan hasierako puntuan egongo gara.